



ERDIALDEREN BIDAIAEN

ARAUDIA

- 1. Erdialdeko bazkide izatea eta egunera egotea Elkartearen kuoten ordainketari dagokionez.**
- 2. Ez edukitzea Elkartean disziplina-espedienterik zabalik.**
- 3. Bidaia Erdialderen aretoetan bertan erosiko da, aurrez aurre.**
- 4. Ez da erreserbarik onartuko.**
- 5. Bazkide bakoitzak gehienera lau bidaia erosi ahalko ditu. Plazak iritsiera ordenaren arabera emango dira.**
- 6. Ordainketa banketxeko txartel bidez egingo da, bidaia erosteko unean bertan.**
- 7. Nor bere kasa moldatzeko gai izatea eguneroko jardueretan eta hainbat eguneko bidaia bati dagozkionetan, esaterako taldearen erritmoari jarraitzeko, etab.**
- 8. Bidaia guztietan sartzen da laguntza-asegurua eta baliogabetze-asegurua. Aseguruaren poliza mail bidez bidaliko zaie bidaian parte hartzen duten bazkideei; bertan zehazten dira baliogabetzeko zer kausa dauden estalita. Edonola ere, behar bezala justifikatu beharko dira.**
- 9. Bidaietarako, egun bakarreko irteeretarako edo kultura irteeretarako izena emateko epea hasten den egunetan ez da bazkide berririk egiteko aukera izango.**

10. Bidaia guztiak dira mantenu osokoak. Ez da menurik aldatuko, baldin eta ez bada medikuaren justifikaziorik aurkezten izena emateko unean.

11. Ezeztatzeak

a) Bidaia arrazoi justifikatuekin ezeztatzen bada, espedientea zabalduko da aseguruarekin, hark erabaki dezan dirua itzuli behar den edo ez.

b) Aseguruaren hartzailearen erantzukizuna da aseguru-etxeak eskatzen duen dokumentazioa aurkeztea espedientearen ebazpenerako. Egiaztagiriak Erdialderen bulegoetan aurkeztuko dira, eta handik igorriko zaizkio aseguru-etxeari; hark, hala badagokio, eskatzaileari itzuliko dio dagokion ordainketa ken aseguruaren zenbatekoa.

c) Bidaia hasita dagoela, ezinbestean ezeztatzen bada, bai erakundearen aldetik bai partikularki, ez da dirurik itzuliko, baldin eta ez bada zenbatekoren bat itzultzea lortzen.

d) Egun bakarreko irteeretan, ezeztapenak justifikatuak badira eta irteera egin baino 15 egun lehenago jakinarazten bada, itzuli egingo da dirua.

e) Edonola ere, dirua itzultzeko ezinbestekoa izango da billetea eta ordainketaren ticketa aurkeztea. Itzulketa ordaindutako txartel beraren bidez egingo da.

12. Erdialde Elkartearen bidaia, irteera eta bisita kultura guztietan, gutxienez Zuzendaritza Batzordeko pertsona bat egongo da, horiek zuzen irteteko egin beharreko kudeaketa guztietan laguntzeko helburuarekin.

13. Erdialde Elkartek beretzat gordetzen du bidaiak, irteerak eta bisita kulturalak aldatzeko edo ezeztatzeko eskubidea, horiek egiteko premia teknikoen, antolamenduaren edo premiazko bestelako arrazoi baten arabera.

ERDIALDE ELKARTEA